

## 7. BIZIKIDETZA PLANAREN URTEKO ZEHAZTAPENA

Ikastetxeko Urteko Planean, urtero sartuko dugu ikastetxeko elkarbizitza hobetzeko helburu bat gutxienez. Elkarbizitza Planean jasotako helburuetako baten zehaztapena izango da.

Gainerako urteko helburuen kasuan gertatzen den bezala, plangintza egin eta jarduerak garatuko dira helburu horiek ere lortzeko.

Jarduera horien garatu eta jarraitzeko arduradunak finkatuko dira , eta baita denborak, baliabideak eta jarraipen- eta lorpen-adierazleen zehaztapena ere.

Helburu horien ebaluazioa ikasturte amaierako memorian islatuko da , eta kontuan hartuko da hurrengo ikasturteko elkarbizitza-helburuak ezartzean.

Elkarbizitzaren Behatokiak, hau da eskola-komunitateko sektoreen ordezkaritza biltzen duen estamentuak, urtero elkarbizitzarako helburuak proposatuko ditu, eta garatu beharreko jardueren diseinuan eta jarraipenean parte hartuko du.

Helburuek eta aukeratutako jarduerak, berekin dituzte zenbait prestakuntza-ekintza, eta Ikastetxeko urteko Planaren prestakuntza-atalean jasoko dira.

Halaber, Urteko Planean estamentuen parte hartzeko modua, ordezkaritza, eta bakoitzaren zereginak eta erantzukizunak.

Prozedurak ezarriko dira komunitateko kide guztiek ikasturte bakoitzeko helburuak ezagut ditzaten, eta haiek lortzen lagun dezaten.